

MARTXOAREN 8A

Geu izateko jai
garela laguna,
baina garrantzitsua
dugu maitasuna.
Konpontzen gara soilik
maitatuz duguna,
gogor defendituta
eutsi gure_eguna.

Matxoaren 8a
eguna gurea,
ondo pasatzea da
gaur dugun legea,
Gureak dira festak,
gauak ta kalea
borrokatzen jarraituz
gora_emakumea!

Gure erabakia
ta askatasuna,
martxoaren 8a
itzela eguna.
Emakumeak ondo
pasatzen duguna,
eskaini behar zaie
gure maitasuna.

Emakumeak ondo
lan egiten dabe,
egoera egon da
oso-oso grabe.
Orain hasi borrokan
gogor bere alde,
emakumeak gara
oso harro gaude.